

Agurtzane Intxaurraga "Ai, ama!" taularatzeari ekin zion duela hiru urte eta prest dago emaitza

## «Oso gogorra egin zitzaidan "Ai, ama!" irakurritakoan»

Goretti Aldalur Donostia

**ARANTXA ITURBEREN** "Ai, ama!" lana taularatzeari ekin zion duela hiru urte eta prest dago emaitza. "Hika Teatroa"ren azken erronka, Agurtzane Intxaurragaren zuzendaritzapean. Obraren muina gai unibertsalenetako bat da: Zergatik erabakitzen du emakume batek ama izatea?. Galdera horri erantzuten saiatuko dira taula gainetik, Ainhoa Aierbe, Miren Gojenola eta Pilar Rodriguez aktoreak.

**Ez duzu aretoa emakumez beterik?**

Berez, antzerkira askozaz ere emakume gehiago joaten da gizonetako baino. Ez dakit sentsibilitate gehiago dugun edo... zinean ez da hainbeste antzematen baina antzerkian bai. Eta ikuskizun honetan joera bat egongo da, zeren Arantxaren liburua irakurri dutenak, batez ere, amak izan dira. Amak edo bikoteak. Dena dela, nik gizonetako ere gomendatzen diet.

**Gomendatu bai, baina taula gainean ez duzu errukirik izan. Paper guztiak emakumeentzat dira.**

Bestela oso bide zabala irekitzen genuen eta erabaki genuen ama eta umea hartzea. Hori bai, bukaeran keinu bat egiten diegu aita direnei barkamena eskatuz edo... keinu horrekin esaten diegu ama bezala asko geneukala kontatzeko teloa irekitzeko, eta beste batean izan beharko duela "Ai, aita!"rena.

**Lehentasuna amari edo emakumeari eman diezue?**

Kasu honetan, lehentasuna haurrari eman diegu. Ez da amen arteko harremana ere, baizik eta ama eta umearen artekoa.

**Guzti hori oso poetikoki islatu nahi izan duzu. Horrela sentitzen duzulako, agian?**

Irakurri nuenean gogorra egin zitzaidan. Pentsatu nuen bakarrik ironia bidez kontatzen bagenuen indarra kenduko geniola, eta gogortasunetik ere kontatu nahi nuela istorio hau erabaki nuen. Eta, gogortasun horri kontrapuntua jartzeko iruditu zitzaidan taularatzeari poetikoki izan behar zuela. Samurra da alde batek, baina era berean kontatzen dena gogorra da.

**Min egiten duten egia asko daude antzezlanean?**

Ama garenok mina askotan sentitzen dugu, ezin hori, errudun sentitze hori... eta egia horiek nahi izan ditugu islatu. Badaude beste egia batzuk, ume horrek

sentiarazten dizkizun une zoragarri horiek, adibidez. Gertatzen dena da hori kontatuta dagoela jada. Batzuei irudituko zaie beraiengatik urrun dagoela sentimendu hori, edo beharbada ez, eta pentsatuko dute askotan bizi izan dutela eta norbait ausartu dela kontatzera.

**Monologo bat ere izan zitekeen.**

Bai, agian logikoa izango zen emakume bat bere esperientziak kontatzen jartzea, baina niri aberasgarriagoa iruditu zitzaidan hasieratik emakume horren aurrean beste batzuk jartzea.

**Lan bikoitza tokatu zaizu. Autorearena eta zuzendariarena. Dena dela, gidoilari lanetan ondo entrenatua egongo zara "Goenkale"rekin, ala?**

Beno, nik antzerkirako ere idatzi dut baina gehien bat, haurrentzako obrak izan dira. Horregatik, niretzako erronka nagusia izan zen bapatean Arantxa batekin elkarlanean aritzea. Arantxa idazle bat da, eta beldurra sortu zidan horrek.


**"Hika Teatroa"rekin lan gehiago egin dituzu zuzendari modura. "Serioenetako" bat izan daiteke hau?**

Serioagoa baino gehiago esango nuke, ni neu helduagoa naizela. Umea eduki nuenetik, ez dut zuzendu. Eta lan honetarako denbora hartu nahi nuen. Hasi aurretik asko mamitu dut eta izugarriko gogoarekin nengoen.

## Estreinaldia, hilaren 24an

OSTEGUNEAN, HILAREN 24an hasi eta datorren igandera bitartean, egunero aurkeztuko du "Hika Teatroa"k "Ai, ama!" antzezlana, Donostian dagoen Egia Kultur-etxean.

Guztira lau emanaldi izango dira, saio bat egun bakoitzean, iluntzeko 20:00etatik aurrera. Hori bai, osteguneko eta igandeko emanaldiak euskaraz izango dira eta ostiralekoa eta larunbatekoa, aldiz, gazteleraz. Taldeak baditu saio gehiago hitzartuak dagoeneko, oraindik estreinatu ez den arren. Azaroak 8an Tolosan aurkeztuko dute obra eta ez dute hutsik egingo Azpeitiako Antzerki Topaketetan ere. G.A.



Agurtzane Intxaurraga urte askotan aktoreen zuzendari gisa aritu da lanean "Goenkale"n eta orain, gidoilari gisa dago telesail honetan bertan. Nagore Iraola

### Amatasunaren gazi-gozaok

«Umea izan nuenetik ez dut zuzendu eta izugarriko gogoarekin nengoen»

«Ama bateri ezina, errudun sentitzea... egia horiek islatu nahi izan ditugu»

«Ez da amen arteko harremana, ama eta umearen artekoa baizik»